

L A L E C T

U R A C O

M P R E N

S I W A E N

E L C U R R

I C U L O E

S C O L A R

**Ulermenezko
irakurketa eskola
curriculumean**

Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza

BLITZ
Liburutegiko saga

I SORTA HORIA

.....

**Ulermeneko irakurketa
eskola curriculumean**

Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

BILDUMAREN ZUZENDARITZA
Diseinu eta Curriculum Garapenerako Unitate Teknikoa

DISEINUA
Asis Bastida

INPRIMAKETA
Ona Industria Gráfica

L.G. NA - 2.751/2002
ISBN 84 - 235 - 2.292 - X

.....

**Ulermenezko irakurketa
eskola curriculumean**

Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

.....

«Ikasleek ez dute ezer irakurtzen, eta irakurtzen dutenean ere, ez dute ezer ulertzen.» Maiz esan eta entzuten dira horrelakoak irakasleen artean eta, izan ere, halaxe da: ikasleek ez dute irakurriaren ulermena batera landua eta beraz ezin dute ikasketa esanguratsu bat lortu, eta ez gaurko teknologiak eskaintzen dituen kanalak egoki erabili ere, ezagupenen parte guztiz handi bat, izan ere, dokumentu idatzien bitartez bereganatzen baitute.

Gauzak horrela, hezkuntza komunitatearen osakideon eginkizuna da gure ikasleek, ikasketa aldia bukatzean, eta zeinek bere adinari dagokion neurrian, behar diren hizkuntza trebetasun oinarrikoak beretuta izan ditzan, ikasbidean egoki aurrera egin eta bere irakurtze ohitura garatzeko.

Irakasleak ohartu dira zenbaterainoko inportantzia duen lan horrek. Honako ebazpen honen azken helburua da Nafarroako Bigarren Hezkuntzako irakasle guzti-guztien laguntza eskatzea guztien ardurako helburu hori iristeko: ikastetxeetan irakurriaren ulermen maila altxarazi eta hortaz gure ikasleak herritar ikasiak izan daitezen lortzea, Europako lan munduan egoki txertatzeko gai izanen direnak.

Bestalde, esan dezagun ulermenezko irakurketaren aldeko apustu honek ez diela lan gehiagorik ekarriko irakasleei: elkarrekin «praktika on» batzuk errotzeko aukera emanen zaie, besterik ez, metodo korapilatsu eta zailik erabili gabe, errealismo handiarekin, eta ikasgelan eskuarki egiten diren gauza berak modu arrazional, ohartu eta koordinatuan erabiliz.

Ebazpen honetan zenbait jarraibide edo sujerentzia sartu dira, batzuetan gogoetak ere bai, irakurriaren ulermena lantzeko. Haien bidez, bultzatzea egin nahi zaie irakasle batzuei ikasgelan irakurtze praktikak egiten segi dezaten, eta beste batzuei, berriz, gogoan harrarazi irakurriaren ulermena lantzea irakasle guztion eginbeharra dela, zein ere ikasgai ematen duten.

Proiektu hau Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren proiektu kuttunenetakoa da, gogor sinisten baitugu irakurriaren ulermena bultzatzeak, arlo guztietan eta irakasle guztiak bat eginik, asko lagunduko duela Nafarroako ikasleen eskola emaitzak hobetzen. Hona, bada, gure proposamena. Irakasle guztiek «ulermenez» irakurriko ahal dituzte ebazpen honetako jarraibideok: nahi genuke hemen azaltzen diren ideiak ongi ulertu, behar dena erantsi, azpimarratu, komentatu, eta horren guztiaren gainean gogoeta egingo balute, horrela pixkanaka irakurtzeko ohitura onak erro sendoa egin dezan ikasgeletan.

Ulermenezko irakurketa Lehen eta Bigarren Hezkuntzetako helburu lehenetsia izanen da datozen urteetan, teknologia berrien ezarpena eta atzerriko hizkuntzen sustapenarekin batera, dena Nafarroako hezkuntzaren kalitatea goratzea helburu.

Santiago Arellano Hernández
HEZKUNTZA ZUZENDARI NAGUSIA

L A A L

U R P A

M P I

S I W A

AURKIBIDEA



ULERMENEZKO IRAKURKETA LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMEAN 7

583/2002 ebazpena, uztailaren 15koa 8

Eranskina

Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko orientabideak 10

ULERMENEZKO IRAKURKETA BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRICULUMEAN 17

527/2002 ebazpena, ekainaren 27koa 18

Eranskina

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan ulermenezko irakurketa eta berariazko hiztegia lantzeko orientabideak 20

Bibliografia 27

IRAKURKETA PLANAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK 33

LEHEN
HEZKUNTZA
583/2002 Ebazpena



Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean

583/2002 EBAZPENA, uztailaren 15koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena.

Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko zuzendariak adostasun txostena eman du Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak onesteko.

Lehen Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen otsailaren 16ko 100/1992 Foru Dekretuak, etapa osoan zehar erdietsi beharreko helburuen artean, ondoko hau finkatzen du: «Egoki, sortzaile eta beregain mezu idatziak eta ahozkoak ulertu eta produzitzea, gatzelaniaz eta hala bide denean euskaraz, komunikazio asmo eta testuinguru desberdinetan, hala nola ahozko eta idatzizko mezu errazak testuinguruan ulertu eta produzitzea».

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, irakurmenak curriculumeko arlo guztietan eta ikasgelako jarduera askotan zeharkako gaitasun gisara duen garrantziak oharturik, plan bat prestatu du epe motz, ertain eta luzean, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ulermenezko irakurketa bultzatzeko.

Plan horren barrenean neurri batzuk hartu dira xede horri begira, hala nola:

- 2001/2002 ikasturtean ulermenezko irakurketa ebaluatzea Lehen Hezkuntzako 6. mailan, DBHko 2.ean eta DBHko 4.ean, gaitasun horrek derrigorrezko hezkuntzan duen bilakaeraren berri izateko.
- 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan hobekuntza planak ezartzea ikastetxeetan, alderdi horiek sakonago lantzeko.
- Eskoletako liburutegiak eta irakurtzearen aldeko kanpainak bultzatzea.

Dena den, komeni da neurri horiek guztiak antolatzea, hezkuntza etapa horretako curriculumean eta irakasleen eguneroko eginkizunetan sartzeko.

Ebazpen honen xedea curriculumaren alderdi hauek garatzea da; horretarako, jarraibide eta orientabide batzuk emanen dira, bai programazioan, bai, batez ere, arloaren curriculuma ikasgelan lantzeko jardueretan alderdi horiek sartu ahal izateko.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 30eko 339/1999 Foru Aginduaren bitartez esleituak ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenbizikoa.- Curriculumeko arlo guztietako programazioetan, arloko ulermenezko irakurketaren eta berariazko hiztegiaren tratamendua sartuko da haien helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen artean, modu integral batez.

Bigarrenena.- 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan, zikloko bileretan, arreta berezia emanen diete lehenbiziko puntuan aipaturiko alderdiei. Zikloko koordinatzaileek etapako maila guztietan arloko ulermenezko irakurketa eta berariazko hiztegia lantzen direla kontrolatuko dute.

Hirugarrena.- Ebazpen honen eranskinean orientabide batzuk ematen dira curriculuma garatzeko ikasgelako jardueretan ulermenezko irakurketa lantzen laguntzeko.

Laugarrena.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak prestakuntza berezia antolatuko du etapako irakasleentzat, eta material didaktikoak argitaratuko ditu, arloaren helburuen eta edukien ohiko tratamenduan ulermenezko irakurketa sartuko duten *jarduera onak* zabaltzeko.

Bosgarrena.- Ebazpen hau Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzura, Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Zerbitzura, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzura, Euskara Zerbitzura, Ikasketak Antolatzeko Atalera, Hezkuntzaren Berriztapen eta Sustapenerako Atalera, Irakasleen Hobekuntzako Atalera eta: bon.era igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Seigarrena.-Ebazpen honek: bon.ean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta biko uztailearen hamabostean.

HEZKUNTZA
ZUZENDARI NAGUSIA

Santiago Arellano Hernández

.....

LEHEN HEZKUNTZAKO ARLO GUZTIETAN
ULERMENEZKO IRAKURKETA ETA BERARIAZKO
HIZTEGIA LANTZEKO ORIENTABIDEAK

**1. Testuak ulertzea, curriculumeko arlo guztietako
ohiko eginkizuna**

a. Irakurriaren ulermena lantzea Hizkuntza arloaren zeregina dela uste ohi da, eta gero ikasleek bertan ikasi dutena gainerako arloetan erabili behar dutela.

Egia bada ere alderdi horiek jorratzea Hizkuntza arloari dagokiola bereziki, esan behar da arlo guztietan lan egin behar dela ikasleek edukiak azaltzeko erabiltzen diren testuak uler ditzaten.

b. Curriculumeko arloetan mota desberdineko testuak lantzeak eta irakasgaiko berariako hitzak eta hizkuntza ulertzeak ikasleen hizkuntza-erregistroak aberasteko eta hiztegi zabala, argia eta aberatsa osatzeko balio du.

c. Ikasleek nolabaiteko zailtasuna duten idatzizko testuak ulertzeko teknikak menperatzen ez badituzte, eskola porrotera bideratzeaz gain, ezaguera eta hazkunde pertsonalerako bidea ixten zaie. Horregatik, testuak irakurriz (literaturakoak, dibulgaziokoak, didaktikoak...) kontzeptuak eta haien arteko loturak ulertzeko ematen den denbora eta ahaleginak epe motz, ertain eta luzeko inbertsio bat direla pentsatu behar da.

d. Kontuan hartu behar dugu irakurriaren ulermena, ikasteko baliabidea ez ezik, ezinbesteko baldintza dela ikasleak irakurtzen atsegin har dezan.

II. Ahozko irakurketaren balioa

a. Goraki irakurtzea, ulertzeko lagungarria izateaz gain, ideia eta sentsazioak adierazteko tresna da. Ikasle batek gaizki irakurtzen baldin badu goraki, irakurtzen duena ulertzen ez duelako da, eta, beraz, besteek ere ezin diote ulertu. Hortaz, goraki irakurtzea ulermenezko irakurketarekin batera landu behar da.

.....

b. Goraki irakurtzeko trebetasuna Lehen Hezkuntzaren xedeetako bat da. Etapa horretan teknika lantzen da: doinua, irakurketaren zentzua, ahoskatzea, ahotsaren tonua, ebakeraren abiadura, lasaitasuna, etab., ikasleen adinerako testu egokien bidez.

.....

c. Goraki irakurtzea etapako hiru zikloen helburua da. Ongi eta zuzen egiten bada, ulertzeko balio du eta laguntza ematen ikasleari jendaurrean hitz egiteko gaitasuna hobetzeko. Horregatik, komeni da ikasgelan goraki irakurtzea, bai irakasleak, bai ikasleak.

Irakasleek ikasgelan agertzen den edozein aukeraz baliatu behar dute goraki ongi irakurtzearen garrantzia azpimarratzeko.

III. Arloetako testuen ulermenezko irakurketaren bitartez ikastea

a. Ulermenezko irakurketak ohiko jarduketa, etengabea eta guztientzakoa, izan behar du arlo guztietako edukiak ikasteko prozesuan. Ikastea zuzeneko esperientziaren eta zeharkako esperientziaren bitartez egiten da. Testuen bidez ikastea azken modalitate horren adibide bat da. Ulertzea ezinbestekoa da ikaskuntza esanguratsua izateko, eta, beraz, testuak ulertzea lehenbiziko urratsa da ikasleek arlo bakoitzeko kontzeptuak ulertu, lotu, bereganatu eta gogoratzeko.

.....

b. Irakasleek, ahozko azalpenaz gain, baliabide asko erabiltzen ditu irakasteko, hala nola entziklopediak, liburu espezializatuak, testu hautatuak, CD-ROMak, web-guneak etab. Gehienetan, testuliburua arloa ikasteko oinarrizko elementu gisara erabiliko da ikasle guztiekin. Hortaz, idatz-zati honetan testuliburuei buruz esaten dena irakasleek bidezkotzat jotzen duten beste edozein baliabide didaktikori aplikatzen ahal zaio.

Bestalde, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen direnean, komeni da jarduera didaktikoak sartzea, irudiak eta testuak modu ulerkor eta kritikoz irakurtzea barne hartzen dutenak.

.....

c. Gaur egungo testuliburuak, oro har, diseinu didaktiko bikaina dute eta, laguntza eta baliabide gisara erabiliz gero, ikasteko tresna ona izan daitezke ikasleentzat. Testuliburuak ez dira liburu zientifikoak, liburu didaktikoak baizik, zientziako kontzeptuak irakatsi eta ikasteko egoerara egokitzen dituztenak. Hori dela eta, egitura berezia dute: definizioak, haien azalpenak, laburpenak, kontzeptu-mapak, laukiak, adibideak, planteatzen diren alderdiak eguneroko bizitzako egoera eta esperientziekin lotzeko oharrak, ariketak, grafikoak, argazkiak eta bestelako jarduerak, arloaren edukia irakurri eta ulertzeko laguntza ematen dutenak. Irakasleek, alderdi horiek kontuak harturik, arloaren helburuei eta beren metodologiari hobeki egokitzen zaiei eta ulermenezko irakurketa gehien lantzen duen testuliburua hautatuko dute.

.....

d. Klasea prestatzen duen bitartean, komenigarria da irakasleak minutu batzuk ematea unitate didaktiko edo ikasgaiaren egitura linguistikoa eta kontzeptuala aztertzeko, eta ikasleei nozio horiek ematea ikasteko behar diren teknikekin batera.

Adibidez, izenburua eta zatiak edo galderak irakurriz, aurreko sintesi edo laburpen bat lortzen dugu, gero jorratuko den gaiaren ideia orokorra ematen diguna, eta horri esker bidea dago aurretik dakiguna agertzeko. Arlo batzuetako liburuetan testu batzuk daude, zeinen lerroaldean hasieran gero azaltzen den definizio bat baitago, eta beste batzuetan, berriz, kontzeptuak definitzeko hurbilketa batzuk erabiltzen dira, lerroaldean bukatu erantzuten direnak.

Irakasleak egitura horretaz eta beste batzuek ohartaraztea haien ulermena garatzeko laguntza ematea da. Azpimarratze eraginkorraren teknikak alderdi hori lantzea du xedetzat. Nolanahi ere, paper eta arkatzarekin irakurriz gero, irakurketa aktiboa izanen da, arreta eta interesa mantentzeko lagungarri izateaz gain, irakurtzea idazmenari eta adierazmenari hertsiki loturiko jarduketa baita.

.....

e. Irakurtzeko dauden modu ugarien artean, hiru hauek dira ikasgeletan erabili ohi direnak: aurretiaz irakurtzea edo lehenbiziko irakurketa, mantso eta xehetasunetan erreparatuz irakurtzea edo bigarren irakurketa, eta sintesia egin eta edukia asimilatze-ko irakurtzea edo hirugarren irakurketa. Irakasleek, modalitate bakoitzaren alde onez eta mugez oharturik, egokien iruditzen zaizkien egoeretan erabiliko dute horietako bakoitza.

Irakurtzeko modu horiek edozein agiri idatziri aplikatzen ahal zaio, edozein formatutako edo euskarririk izanik ere: entziklopedia, albuma, testuliburua, aldizkari zientifikoak, web-gunea, CD-ROM multimedia, legegintzako buletina, turismoko liburuxka, erakusketa-katalogoa, aparatua bat muntatu edo abian jartzeko jarraibideak, kirol jokoen baten arauak etab.

f. Aurretiazko irakurtzearen helburua modu global batez gaira hurbiltzea da. Oro har, lehenbizian ulertzen ez den horri ez zaio kasurik ematen, eta ulertzen den horretan zentratzeko joera dago. Ikasleek ikasgaia aurretik irakurri eta bi zerrenda egitea, bata ulertu dituzten kontzeptuez osatua eta bestea ulertu ez dutenez osatua, oso emaitza onak uzten dituen ohiko jarduketeta da irakasleen artean.

Komeni da irakasleak irakurtzeko gako batzuk ematea, irakurketa hobea izateko lagungarriak baitira. Hona hemen gako horietako batzuk: gaiaren egitura, gai horrek erantzun nahi dituen galderak, irakurtzeko gida batzuk, ikasleari testua hobeki ulertzeko laguntza ematen dion guztia.

.....

g. Mantso eta xehetasunetan erreparatuz irakurtzearekin testu edo ikasgaiaren zati guztiak ulertu nahi da, irakurketa analitikoa egiten baita. Ikasleak ez du ulertu arte aurrera egiten, eta, behar izanez gero, atzera egiten du ideia bat berretsi edo baztertzeko. Irakurtzeko modalitate horretan oso lagungarria izaten da irakaslearen parte-hartzea, kontzeptu berri batzuk ulertzeko zailtasunari horiek azaltzeko hizkuntzaren zailtasuna gaineratu behar zaiolako. Horregatik, ikasleekin batera irakurri eta testuak aztertzeko laguntza ematea ez da denbora galtzea; horrek, jakina, ez du irakasteko teknika bakarra izan behar, baina komeni da irakaslearen baliabide metodologikoen arteko bat izatea.

.....

h. Sintetizatu eta asimilatzeko irakurketa oso irakurketa pertsonala da eta, aurrekoak bezalaxe, ezinbestekoak ditu kontzentrazioa eta arreta. Irakurtzeko modalitate honen bitartez kontzeptuak eta haien arteko loturak pertsonalki landu eta gogoan gorde nahi dira, modu esanguratsuan.

Ulermenezko irakurketa gure oroimenaren lagun ona da, kontzeptuen esanahia ulertuta errazagoa baita horietaz oroitzea.

.....

i. Ulermenezko irakurketa lehenbiziko urratsa da bestelako arlo batzuekin (ahozko adierazpena, idazmenaren jarioasuna, goraki irakurtzea doinu egokiarekin...) osatu beharreko prozesu batean.

Komeni izaten da irakurtzeari eta idazteari loturiko jarduerak proiektatzea (eztabaidak, beste ikasle batzuei hitzaldiak ematea, eskolako egunkarirako artikulua, eszenifikazioak, irrati-saioak, erakusketak, horma-irudiak...).

.....

j. Irakasleek liburutegiaren erabilpena bultzatuko dute, edozein euskarri erabiltzen duen baliabide-zentro antolatua den aldetik, curriculumeko arlo guztiak modu aktibo batez ikasteko laguntza eman eta, ikasleen maila soziala alde batera utzita, hezkuntzari begira haien berdintasuna bultzatzen duena.

.....

IV. Arloko hizkuntza berariazkoa eta haren hiztegia

a. Testuliburuetan eta arlo bakoitzeko liburuan erabiltzen den hizkuntza erdibidean dago zientzietako edo jakintza-arloetako hizkuntza jaso edo zientifikoaren eta eguneroko egoeretan erabiltzen den hizkuntza arruntaren artean. Ikasleek jakin behar dute arian-arian, mailaz igarotzen diren heinean, gero eta hizkuntza zehatzagoa, eskolara eta irakasgaira egokitua, erabili behar dutela.

Ohartu behar dute literaturako hizkuntza ez dela, adibidez, gizarte zientzietakoa, edo zientzia formaletakoa, natur zientzietakoa nahiz arte plastikoetakoa bezalakoa.

.....

b. Aipamen berezia merezi du hitz berriak ikasteak. Arlo eta maila bakoitzean hitz berariazkoak daude, ikasleei aurkezten zaizkien kontzeptuei dagozkienak. Ikasleen jakinduriari urtero erantsi nahi zaizkion berariazko hitzen zerrenda eginen balitz, haien irakurmenaren eta kontzeptu-ulermenaren bilakaera etapan zehar planifikatu eta ebatzatzeko bidea egonen litzateke.

.....

c. Hiztegiak eta kontsultarako liburuak erabiltzea baliabide ezin hobea da ikasleengan zehaztasunaren aldeko atsegina eta joera sortzeko. Ikasleei kontzeptuen ordenari eta sistematizazioari buruzko hezkuntza emateko, irakasle askok koadernoak edo agiritegiak erabiltzen dizkiete, haietan agertzen diren hitz berriak, beren esanahia edo ikasgaiarekin gehien lotzen zaion adiera ondoan dutela, jartzeko, arloko glosario gisara.

Arreta berezia eman behar da kontzeptuak ulertu eta asimilatu ondoren, ikasleak beren hitzekin eta modu ulergarrian idatziz azaltzeko gauza izan daitezten.

Komenigarria litzateke ikasturte bakoitzean landu beharreko oinarritzko hitzak programazio didaktikoan sartzea, kontuan hartuz arlo bakoitzeko berariazko hitzak ikastea ez dela berez helburu bat, arloa ulertzeko bitarteko bat baizik.

ASTEKO IRAKURRALDIA

a. Lehen Hezkuntzako ordutegia ikastetxe publikoetarako arautzen duen Foru Agindua ikastordu bat ezartzen du astean irakurtzeko.

Ikastetxe itunduek asteko irakurraldia finkatzen saiatuko dira beren ordutegian.

.....

b. Asteko irakurraldia erraza izanen da, testu desberdinak eta ugariak erabiliz.

.....

c. Bakarka edo taldeka irakurriko da, isilik edo goraki, irakasleak erabaki bezala.

.....

d. Irakurraldia derrigorrezkoa da ikaslearentzat. Irakurtzeko ohitura eta atsegina bultzatzeko moduan antolatu behar da. Beraz, ez da Hizkuntza arloko klasearen jarraipena bailitzan planteatu behar; aitzitik, bertan ikasitakoa aplikatzeko eta ikasleak irakurtzen duena ulertzeko duen gaitasuna baloratzeko balioko du.

.....

e. Bakarka irakurtzeko, ikasleak nahi duen liburua hautatuko du literaturako nahiz dibulgazio zientifikoko liburuen multzo zabal batetik.

Garrantzitsua da ikaslea pozik egotea aukeratu duen liburuarekin, eta, hortaz, zilegi izanen du bat utzi eta beste bat hartzea, irakasleak lagunduta.

.....

f. Irakaslearen zeregina irakurraldian:

- Irakurketa bultzatzeko jarduerak eta horretarako tokia (ikasgela, eskolako liburutegia, etxea...) antolatzea.
- Modu aktiboan jokatzea, ikasleei adinaren, ikasteko erritmoen eta ezaugarri berezien arabera gehien komeni zaizkien liburuak aukeratzeko laguntza emanez.
- Ikasleak motibatu eta animatzea, irakurtzen atsegin har dezaten.
- Irakurtzeko joerak bultzatzea, ikasleek irakasleen jokabideak imitatu ahal ditzaten.
- Egindako irakurketek eskolatik at ere eragina, ahozkoa nahiz idatzia, izan dezatela saiatzea, erakusketa, panel, eztabaida eta abarren bidez.
- Eskolarekin batera lan egiteko prest dauden familiei orientabideak ematea ikastetxeko irakurtzeko planen barruan, irakurraldian proposaturiko helburuei jarraikiz.

.....

DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZA

527/2002 Ebazpena



Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean

527/2002 EBAZPENA

527/2002 EBAZPENA, ekainaren 27koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena.

Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko zuzendariak adostasun txostena eman du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak onesteko.

Martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua aldatzen duenak, etapa osoan zehar erdietsi beharreko helburuen artean, ondoko hau finkatzen du: «Egoki, sortzaile eta beregain mezu idatziak eta ahozkoak ulertu eta produzitzea, gaztelaniaz eta hala bide denean Komunitate Autonomoko hizkuntzan, eta gogoeta egitea hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten prozesuen gainean eta hizkuntzak norbere pentsamenduak antolatzerakoan duen garrantziaren gainean». Helburu orokor hori berariazko helburu gisara zehaztu da etaparen curriculumeko arlo guztietan, honela: «arloko edukiak ikasteko erabiltzen diren testuak irakurri eta ulertzeko behar diren trebetasunak bereganatzea»; halaber, arlo guztietako eduki gisara sartu da, «Arloko hizkuntzaren gakoak: ulermenezko irakurketa», arloko edukien multzoen hasieran hitzaurre moduan dagoen titulupean. Horren ondorioz, ebaluaziorako irizpide komun bat sartu da, ondoko izenburu honekin: «Testuen esanahia eta berariazko hitzak ulertzea».

Ebazpen honen xedea curriculumaren alderdi hauek garatzea da; horretarako, jarraibide eta orientabide batzuk emanen dira, bai programazioan, bai, batez ere, arloaren curriculuma ikasgelan lantzeko jardueretan alderdi horiek sartu ahal izateko.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren irailaren 30eko 339/1999 Foru Aginduaren bitartez esleituak ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenbizikoa.- Departamentu Didaktikoen programazio didaktikoei arloko ulermenezko irakurketaren eta berariazko hiztegiaren tratamendua sartuko dute beren helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen artean, modu integral batez.

Bigarrena.- 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan, horietan ezarriko baitira martxoaren 25eko 61/2001 Foru Dekretuaren bidez erregulatutako curriculumak, Departamentu

Didaktikoek arreta berezia emanen diete lehenbiziko puntuan aipaturiko alderdiei. Departamentuburuek etapako maila guztietan arloko ulermenezko irakurketa eta berriazko hiztegia lantzen direla kontrolatuko dute.

Hirugarrena.- Ebazpen honen eranskinean orientabide batzuk ematen dira curriculumak garatzeko ikasgelako jardueretan ulermenezko irakurketa lantzen laguntzeko.

Laugarrena.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak prestakuntza berezia antolatuko du etapako irakasleentzat, eta material didaktikoak argitaratuko ditu, arloaren helburuen eta edukien ohiko tratamenduan ulermenezko irakurketa sartuko duten *jarduera onak* zabaltzeko.

Bosgarrena.- Ebazpen hau Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzura, Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Zerbitzura, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzura, Euskara Zerbitzura, Ikasketak Antolatzeko Atalera, Hezkuntzaren Berriztapen eta Sustapenerako Atalera, Irakasleen Hobekuntzako Atalera eta: bon.era igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Seigarrena.- Ebazpen honek: bon.ean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta biko ekainaren hogeita zazpian.

HEZKUNTZA
ZUZENDARI NAGUSIA

Santiago Arellano Hernández

.....

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ARLO GUZTIETAN ULERMENEZKO IRAKURKETA ETA BERARIAZKO HIZTEGIA LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Arlo bakoitzeko testuen ulermena, irakasle guztien ohiko eginkizuna

a. Ulermenezko irakurketa D.B.H.ko curriculumera formalki eta arau bidez sartzea, irakasleen ohiko jarduketa bat bildu eta sistematizatzeko premiaren ondorioa da, arlo bakoitzaren edukiak idatzizko testuen bitartez garatzen baitira; testu horiek denboraren arabera sistematizatuak izaten dira batzuetan (adibidez, testuliburuak), eta, besteetan, laguntzarako material osagarri gisara erabiltzen dira une jakin batean (kontsultarako testuak, edozein euskarritako bibliografia bilatzea etab.).

b. Hortaz, ez da kontua curriculumari helburu, eduki eta ebaluaziorako irizpide berriak eranstea, unitate didaktikoak edo ikasgaiak lantzen direnean testuen ulermenari eta berariazko hiztegiari buruzko alderdi batzuk jorratzea baizik. Puntu horretan, alderdirik garrantzitsuena da irakasleek interesa izatea eta ohartzea zein inportantea den testuen ulermena hobetzeko arlo guztietan lan egitea, trebetasun hori baita, zalantzarik gabe, Bigarren Hezkuntzako ikasleen kultura integrala osatzeko ardatza eta baliabide nagusia.

c. Irakurriaren ulermena lantzea Hizkuntza arloaren zeregina dela uste ohi da, eta gero ikasleek bertan ikasi dutena gainerako arloetan erabili behar dutela.

Egia bada ere alderdi horiek jorratzea Hizkuntza arloari dagokiola bereziki, esan behar da arlo guztietan lan egin behar dela ikasleek edukiak azaltzeko erabiltzen diren testuak uler ditzaten. Beraz, esaten ahal da zientziari buruzko testuak ulertzea zientzia arloen eginkizuna ere badela.

d. Arloetako kontzeptu berariazkoen eta teknikoen, hala nola haien arteko loturen ulermenean oinarrituriko jarduketaren ondorioz, batzuetan, gutxiago baloratu da kontzeptu horiek azaltzeko erabilitako modua, eta, hortaz, komeni da, hezkuntzarako

garrantzitsua den aldetik, arloko kontzeptuak adierazteko zehaztasuna berreskuratzea. Hori horrela, arloko berariazko hitzak eta hizkuntza ulertzeak ikasleen hizkuntza-erregistroak aberasteko eta hiztegi zabala, argia eta aberatsa osatzeko balio du.

.....

e. Hizkuntzak, bai ahozkoak, bai idatziak, curriculumera ailegatzea baldintzatzen du. Arloetako ezagupenak hizkuntzaren eta sinbolismoaren arabera antolatzen dira hein handi batean. Zientziek, teknikak, arteak eta humanitateak denboran zehar iraua eta garapena izan badute, arlo horietako jakintza-ondarea liburu eta testu idatzietan gorde delako da. Jakintza arlo horietara ailegatzeko beharrezkoa da ulermenezko irakurketaren teknika batzuk menperatzea, ikasgelan landu behar ohi direnak.

Ikasleek nolabaiteko zailtasuna duten idatzizko testuak ulertzeko teknikak menperatzen ez badituzte, eskola porrotera bideratzeaz gain, ezaguera eta hazkunde pertsonalerako bidea ixten zaie. Horregatik, testu zientifiko edo didaktikoak (testuliburuak, entziklopediak, monografiak, web-guneak etab.) irakurriz, kontzeptuak eta haien arteko loturak ulertzeko ematen den denbora eta ahaleginak epe motz, ertain eta luzeko inbertsio bat direla pentsatu behar da.

Gauza jakina da lan hori zaila dela ikasleentzat, ahozkoa baino hizkuntza formalizatuagoa eta abstraktuagoa ulertzeko arreta eta ahalegin handiagoak behar baitira, baina, bestalde, kontuan hartu behar da ulertzen ez diren gauzek ez dugutela interesik sortzen.

Gainera, irakurriaren ulermena, ikasteko baliabidea izateaz gain, derrigorrezkoa da ikasleek arlo guztietako testuak irakurtzen atsegin hartzeko.

II. Ahozko irakurketaren balioa

a. Goraki irakurtzea, ulertzeko lagungarria izateaz gain, ideia eta sententziak adierazteko tresna da. Ikasle batek gaizki irakurtzen baldin badu goraki, irakurtzen duena ulertzen ez duelako da, eta, beraz, besteek ere ezin diote ulertu. Hortaz, goraki irakurtzea ulermenezko irakurketarekin batera landu behar da.

.....

b. Goraki irakurtzeko trebetasuna Lehen Hezkuntzaren xedeetako bat da, baina ez bakarrik horrena. Etopa horretan teknika lantzen da: doinua, irakurketaren zentzua, ahoskatzea, ahotsaren tonua, ebakeraren abiadura, lasaitasuna, etab. Jendaurrean ongi irakurtzeko laguntza ematen duten alderdi horiek guztiak ikasleen adinerako errazak eta egokiak diren testuen bidez lantzen dira.

Bigarren Hezkuntzan, testu zailagoak irakurtzen direnez, ez da nahikoa izanen aurreko etapen ikasitakoa automatikoki erabiltzea, aitzitik, ikasteko bide berriak beharko dituzte.

.....

Gainera, ez da ahaztu behar ez dela berdin poesia edo narrazio testu bat irakurtzea, edo deskripzioak, argudioak, azalpenak nahiz jarraibideak ematekoa.

.....

c. Horregatik, komeni da ikasgelan goraki irakurtzea, bai irakasleak, bai ikasleek. Goraki irakurtzen denean zentzuz eta modu egokian egitea ongi ulertzen delako seinalea da, eta, halaber, ohitura horrek irakurmena hobetzeko balio du.

Irakasleek ikasgelan agertzen den edozein aukeraz baliatu behar dute goraki ongi irakurtzearen garrantzia azpimarratzeko.

.....

d. Etapa honetako ikasle asko ez dira egoera formaletan jendaurrean irakurtzera ausartzen, adibidez ikasgelan. Horrek segurtasun-falta eta autoestimazio baxua ekar diezazkieke. Ikasleen hezkuntza sozialari loturiko helburu hori lortzeko ona da jendaurrean goraki irakurtzea edo edozein gai azaltzea, betiere Bigarren Hezkuntzako ikasgelaletan hori egiteko ohitura baldin badago.

Hortaz, goraki irakurtzen denean, ondoko alderdi hauek zainduko dira: ulermena, esanera, doinua, ahoskera, ahotsaren inflexioa etab., ikasleek jendaurrean ongi hitz egiteko eta arloetako testuak ulertzeko ohitura har dezaten.

III. Arloetako testuen ulermenezko irakurketaren bitartez ikastea

a. Ulermenezko irakurketak ohiko jarduketa, etengabea eta guztientzakoa izan behar du arlo guztietako edukiak ikasteko prozesuan. Ikastea zuzeneko esperientziaren eta zeharkako esperientziaren bitartez egiten da. Testuen bidez ikastea azken modalitate horren adibide bat da. Ulertzea ezinbestekoa da ikaskuntza esanguratsua izateko, eta, beraz, testuak ulertzea lehenbiziko urratsa da ikasleek arlo bakoitzeko kontzeptuak ulertu, lotu, bereganatu eta gogoratzeko.

.....

b. Irakasleek, ahozko azalpenaz gain, baliabide asko erabiltzen ditu irakasteko, hala nola entziklopediak, liburu espezializatuak, testu hautatuak, CD-ROMak, web-guneak etab. Gehienetan, testuliburua arloa ikasteko oinarritzko elementu gisara erabiliko da ikasle guztiekin. Hortaz, idatz-zati honetan testuliburuei buruz esaten dena irakasleek bidezkozat jotzen duten beste edozein baliabide didaktikori aplikatzen ahal zaio.

Bestalde, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen direnean, komeni da jarduera didaktikoak sartzea, irudiak eta testuak modu ulerkor eta kritikoa irakurtzea barne hartzen dutenak.

c. Gaur egungo testuliburuak, oro har, diseinu didaktiko bikaina dute eta, laguntza eta baliabide gisara erabiliz gero, ikasteko tresna ona izan daitezke ikasleentzat. Testuliburuak ez dira liburu zientifikoak, liburu didaktikoak baizik, zientziako kontzeptuak irakatsi eta ikasteko egoerara egokitzen dituztenak. Hori dela eta, egitura berezia dute: definizioak, haien azalpenak, laburpenak, kontzeptu-mapak, taulak, adibideak, planteatzen diren alderdiak eguneroko bizitzako egoera eta esperientziekin lotzeko oharrak, ariketak, grafikoak, argazkiak eta bestelako jarduerak, arloaren edukiak irakurri eta ulertzeko laguntza ematen dutenak.

Irakasleek, alderdi horiek kontuak harturik, arloaren helburuei eta beren metodologiari hobeki egokitzen zaien eta ulermenezko irakurketa gehien lantzen duen testuliburua hautatuko dute.

.....

d. Klasea prestatzen duen bitartean, komenigarria da irakasleak minutu batzuk ematea unitate didaktiko edo ikasgaiaren egitura linguistikoa eta kontzeptuala aztertzeko, eta ikasleei nozio horiek ematea ikasteko behar diren teknikekin batera.

Adibidez, izenburua eta zatiak edo galderak irakurriz, aurreko sintesi edo laburpen bat lortzen dugu, gero jorratuko den gaiaren ideia orokorra ematen diguna, eta horri esker bidea dago aurretik dakiguna agertzeko. Arlo batzuetako liburuetan testu batzuk daude, zeinen lerroaldean hasieran gero azaltzen den definizio bat baitago, eta beste batzuetan, berriz, kontzeptuak definitzeko hurbilketa batzuk erabiltzen dira, lerroaldean bukatzen direnak.

Ikasleak egitura horretaz eta beste batzuez ohartaraztea haien ulermena garatzeko laguntza ematea da. Azpimarratze eraginkorraren teknikak alderdi hori lantzea du xedetzat. Nolanahi ere, paper eta arkatzarekin irakurriz gero, irakurketa aktiboa izanen da, arreta eta interesa mantentzeko lagungarri izateaz gain, irakurtzea idazmenari eta adierazmenari hertsiki loturiko jarduketara baita.

.....

e. Irakurtzeko dauden modu ugarien artean, hiru hauek dira ikasgeletan erabili ohi direnak: aurretiaz irakurtzea edo lehenbiziko irakurketa, mantso eta xehetasunetan erreparatuz irakurtzea edo bigarren irakurketa, eta sintesia egin eta edukia asimilatuzko irakurtzea edo hirugarren irakurketa. Irakasleek, modalitate bakoitzaren alde onez eta mugez oharturik, egokien iruditzen zaizkien egoeretan erabiliko dute horietako bakoitza.

Irakurtzeko modu horiek edozein agiri idatziri aplikatzen ahal zaio, edozein formatutakoa edo euskarritakoa izanik ere: entziklopedia, albuma, testuliburua, aldizkari zientifikoak, web-gunea, CD-ROM multimedia, legegintzako buletina, turismoko liburuxka, erakusketa-katalogoa, aparatu bat muntatu edo abian jartzeko jarraibideak, kirol joko baten arauak etab.

.....

f. Aurretiazko irakurtzearen helburua modu orokor batez gaira hurbiltzea da. Oro har, lehenbizian ulertzen ez den horri ez zaio kasurik ematen, eta ulertzen den horretan zentratzeko joera dago. Ikasleek ikasgaia aurretik irakurri eta bi zerrenda egitea, bata ulertu dituzten kontzeptuez osatua eta bestea ulertu ez dutenez osatua, oso emaitza onak uzten dituen ohiko jarduketa da irakasleen artean.

Komeni da irakasleak irakurtzeko *gako* batzuk ematea, irakurketa hobea izateko lagungarriak baitira. Hona hemen gako horietako batzuk: gaiaren egitura, gai horrek erantzun nahi dituen galderak, kontzeptuen eta haien testuinguru historiko eta kulturalaren arteko loturak etab.

.....

g. Mantso eta xehetasunetan erreparatuz irakurtzearekin testu edo ikasgaiaren zati guztiak ulertzea lortu nahi da, irakurketa analitikoa egiten baita. Ikasleak ez du ulertu arte aurrera egiten, eta, behar izanez gero, atzera egiten du ideia bat berretsi edo baztertzeko. Irakurtzeko modalitate horretan oso lagungarria izaten da irakaslearen parte-hartzea, kontzeptu berri batzuk ulertzeko zailtasunari horiek azaltzeko hizkuntzaren zailtasuna gaineratu behar zaiolako. Horregatik, ikasleekin batera irakurri eta testuak aztertzeko laguntza ematea ez da denbora galtzea; horrek, jakina, ez du irakasteko teknika bakarra izan behar, baina komeni da irakaslearen baliabide metodologikoen arteko bat izatea.

.....

h. Sintetizatu eta asimilatzeke irakurketa oso irakurketa pertsonala da eta, aurrekoak bezalaxe, ezinbestekoak ditu kontzentrazioa eta arreta. Irakurtzeko modalitate honen bitartez kontzeptuak eta haien arteko loturak pertsonalki landu eta gogoan gorde nahi dira, modu esanguratsuan. Ulermenezko irakurketa gure oroimenaren lagun ona da, kontzeptuen esanahia ulertuta errazagoa baita horietaz oroitzea.

.....

i. Ulermenezko irakurketa lehenbiziko urratsa da bestelako arlo batzuekin (ahozko adierazpena, idazmenaren jarioasuna, goraki irakurtzea doinu egokiarekin...) osatu beharreko prozesu batean.

Komeni izaten da irakurtzeari eta idazteari loturiko jarduerak ikasgelatik at proiektatzea (eztabaidak, beste ikasle batzuei hitzaldiak ematea, eskolako egunkarirako artikulak, eszenifikazioak, irrati-saioak, erakusketak, horma-irudiak...).

.....

j. Irakasleek liburutegiaren erabilpena bultzatuko dute, edozein euskarri erabiltzen duen baliabide-zentro antolatua den aldetik, curriculumeko arlo guztiak modu aktibo batez ikasteko laguntza eman eta, ikasleen maila soziala alde batera utzita, hezkuntzari begira haien berdintasuna bultzatzen duena.

IV. Arloko hizkuntza berariazkoa eta haren hiztegia

a. Testuliburuetan eta arlo bakoitzeko liburuan erabiltzen den hizkuntza erdibidean dago zientzietako edo jakintza-arloetako hizkuntza jaso edo zientifikoaren eta eguneroko egoeretan erabiltzen den hizkuntza arruntaren artean. Ikasleek jakin behar dute arian-arian, mailaz igarotzen diren heinean, gero eta hizkuntza zehatzagoa, eskolara eta irakasgaira egokitua, erabili behar dutela.

Ohartu behar dute literaturako hizkuntza ez dela, adibidez, gizarte zientzietakoa, edo zientzia formaletakoa, natur zientzietakoa nahiz arte plastikoetakoa bezalakoa.

.....

b. Aipamen berezia merezi du hiztegi teknikoak, edo, horrelakoa bada, arlo bakoitzeko berariazkoak. Arlo eta maila bakoitzean hitz berariazkoak daude, ikasleei aurkezten zaizkien kontzeptuei dagozkienak. Ikasleen jakinduriari urtero erantsi nahi zaizkion berariazko hitzen zerrenda eginen balitz, haien irakurmenaren eta kontzeptu-ulermenaren bilakaera etapan zehar planifikatu eta ebaluatzeko bidea egonen litzateke.

.....

c. Arloko testuak ulertzeko beharrezkoa da hitz tekniko eta berariazkoak goitik behera ulertzea. Egia bada ere haien esanahia testuingurutik atzematen ahal dela, hobe da prozesuaren bukaeran ikasleak hitzen esanahiaren ideia zehatza izatea, ulertzeko ez ezik, ahoz zein idatziz adierazteko.

.....

d. Hiztegi eta kontsultarako liburuak erabiltzea baliabide ezin hobea da ikasleengan zehaztasunaren aldeko atsegina eta joera sortzeko. Ikasleei kontzeptuen ordenari eta sistematizazioari buruzko hezkuntza emateko, irakasle askok koadernoak edo agiritegiak erabilarazten dizkiete, haietan agertzen diren hitz berriak, beren esanahia edo ikasgaiarekin gehien lotzen zaion adiera ondoan dutela, jartzeko, arloko glosario gisara.

Arreta berezia eman behar da kontzeptuak ulertu eta asimilatu ondoren, ikasleak beren hitzekin eta modu ulergarrian idatziz azaltzeko gauza izan daitezen.

Komenigarria litzateke ikasturte bakoitzean landu beharreko oinarrizko hitzak programazio didaktikoan sartzeko, kontuan hartuz arlo bakoitzeko berariazko hitzak ikastea ez dela berez helburu bat, arloa ulertzeko bitarteko bat baizik. Hortaz, haren ebaluazioa egiteko abiapuntua ez da, inola ere, hitz zerrenda bat testuingurutik kanpo buruz esatea, haiek ulertzea baizik, irakasleak programaturiko jardueren bitartez: irakurgai hautatuak, problemen enuntziatuak, testuliburuaren, bideo edo web-gune baten erabilpen ulerkorra etab.

.....

e. Hitzen jatorri etimologikoa eta bilakaera historikoa jakiteak, ikaslearen kultur ikuspegia zabaltzeko eta arloetako ezagutzearen arteko lotura eta integrazioa bultzatzeaz gain, memorizazio esanguratsua sustatzen du. Hori horrela, alderdi horiek lantzeko jarduerak ahalik eta maizena eginen dira ikasgelan, irakasleak edo ikasleek hiztegi etimologikoetan egindako kontsulten bidez.

BIBLIOGRAFIA

DENBORAPASAKO LIBURUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZARAKO

NATUR ZIENTZIAK

- AINLEY, D., y ELLIS, G., *Problemas de ciencias. Cosas a investigar*, Madrid, Akal, 1992 (Biblioteca de aula).
- BECKLAKE, J. y BECKLAKE, S., *Contaminación*, Zaragoza, Luis Vives, 1991.
- Colección *BIBLIOTECA BÁSICA ALTEA*, Madrid, Altea, 1991.
- Colección *BIBLIOTECA VISUAL ALTEA*, Madrid, Altea, Taurus, Alfaguara, 1989-1990.
- Colección *COMPRENDER LA NATURALEZA*, Barcelona, Edibook, 1992.
- Colección *NATURALEZA ABIERTA*, Madrid, Bruño, 1991.
- Colección *ORIGEN Y EVOLUCIÓN*, Madrid, Anaya, 1993.
- DE MIGUEL, L., *Ondas, sonido y ruido*, Zaragoza, ICE de la Universidad, 1993.
- MANS, C., *El agua, cultura y vida*, Barcelona, Salvat, 1981 (Aula abierta).
- *Nueva Enciclopedia Temática Planeta. Ciencias de la Tierra. Ciencias de la Vida*, Barcelona, Planeta, 1990.
- RUDEL, A., *Geología*, Barcelona, Hora, 1982.
- Seminario de Física y Química de la Axarquía, *Aprendizaje de la Física y Química*, Vélez-Málaga, Elzevir, 1989.
- STEWART, K. y SHARKEY, J., *La Física y sus aplicaciones*, Madrid, 1992.
- THE EARTH. WORKS GROUP, *50 cosas fáciles que tú puedes hacer para salvar la Tierra*, Barcelona, Emecé, 1991.
- WATTA, A., *Predicción instantánea del tiempo*, Barcelona, Juventud, 1988.

GIZARTE ZIENTZIAK

- AITMATOV, Chingiz Torekulovick, *El primer maestro*, Barcelona, Círculo de lectores, 1993.
- ALAIN, Jean Claude, *Los muchachos de Dublín*, Madrid, SM, 1977.
- ALEGRÍA, Ciro, *Sueño y verdad de América*, Madrid, Alfaguara, 1990.
- BARCELÓ, Juan, *Ojos de jineta*, Barcelona, La Galera, 1979.
- BOSSE, J. Malcom, *La cueva del sueño*, Madrid, Alfaguara, 1986.
- CAMUS, William, *Azules contra grises*, Madrid, SM, 1986.
- CERVON, Jacqueline, *La jarra rota*, Madrid, SM, 1979.
- DICKENS, Charles, *Historia de dos ciudades*, Barcelona, Toray, 1999.
- FARIAS, Juan, *Años difíciles*, Miñón, 1984.
- GOMBRICH, H., *Breve historia del mundo*, Barcelona, Península, 1999.
- MARTÍNEZ DE PISÓN, Ignacio, *Una guerra africana*, Madrid, SM, 2000.
- MOLINA, Pilar, *El terrible florentino*, Barcelona, Noguer, 1975.
- NAVARRO VILLOSLADA, J., *Amaya o los vascos en el s. VII*, Pamplona, Ediciones y Libros, 2002.
- PIPER, Nikolaus, *Félix en la bolsa*, Madrid, SM, 2000.
- PUSHKIN, Alexander, *La hija del capitán*, Madrid, Anaya, 1994.
- SCHILLER VON, F., *Guillermo Tell*, Barcelona, Toray, 1985.
- SHEFER, Dorothea, *El diario de Ana Frank: comentario de la obra*, Barcelona, CEAC, 1989.
- SIENKIEWICZ, H., *Quo Vadis*, Madrid, Anaya, 2000.
- VALLVERDÚ, Joseph, *Bernardo y los bandoleros*, Barcelona, La Galera, 1987.
- VALLVERDÚ, Joseph, *Chacales en la ciudad*, Barcelona, La Galera, 1985.
- VALLVERDÚ, Joseph, *Mir el Ardilla*, Barcelona, La Galera, 1989.

KULTURA KLASIKOA

- BUERO VALLEJO, A., *La tejedora de sueños*, Madrid, Cátedra, 1998.
- BULWER, Edward, *Los últimos días de Pompeya*, Barcelona, S.A. de Promociones y ediciones, 1999.
- COMOLLY, P., *La leyenda de Ulises*, Madrid, Anaya, 1986.
- GARDNER, Jane, *Mitos romanos*, Madrid, Akal, 1995.
- GENEST, Emilio, *Figuras y leyendas mitológicas*, Barcelona, Juventud, 1995.
- JAN, Andrews, *Pompeya*, Madrid, Akal/Cambridge, 1990 (Historia del Mundo para jóvenes).
- MOLINA, Isabel, *Las ruinas de Numancia*, Barcelona, Noguer, 1996.
- SCHALK, G., *Leyendas de los dioses y de los héroes romanos*, Barcelona, Labor, 1958.
- SEGALÁ, L., *La Iliada* (Adaptación de Homero), Barcelona, Bruguera, 1984.
- SENS, Susanne, *Hijo de Meteco*, Madrid, SM, 1986.
- VALLVERDÚ, Joseph, *Un caballo contra Roma*, Barcelona, La Galera, 1996.
- WISEMAN, Cardenal, *Fabiola*, Ed. Gaviota, 1989.



GORPUTZ HEZKUNTZA

- ARAGUNDE, P., *Educación postural*, Barcelona, INDE, 2000 (Biblioteca temática del deporte).
- BEAN, Anita, *Guía completa de nutrición del deportista*, Barcelona, Paidotribo, 2002.
- BERNAL, J.A., BERNAL, M.A., *Juegos y deportes con material alternativo*, Sevilla, ed. Wanceulen, 2002.
- BERNAL, J.A., *Juegos y deportes de aventura*, Sevilla, ed. Wanceulen, 2002
- BERNAL, J.A., *Juegos y deportes de otros países*, Sevilla, ed. Wanceulen, 2002
- BRUGGER, L., *1000 ejercicios y juegos de calentamiento*, Barcelona, Hispano Europea, 1995.
- CAMERINO FOGUET, O., *Deporte recreativo*, Barcelona, INDE, 2000 (Biblioteca temática del deporte).
- FEDERACIÓN ALEMANA DE TENIS, *El Tenis*, Barcelona, Hispano Europea, 1979.
- FUSTE, X., *Juegos de iniciación a los deportes colectivos*, Barcelona, Paidotribo, 2001.
- GONZÁLEZ MILLÁN, C., *Voleibol básico*, Madrid, INEF, 1985.
- HERNÁNDEZ, M., *Iniciación al bádminton*, Madrid, Gymnos, 1989.
- INDE, *Fichero de cualidades físicas y motrices*, Barcelona, INDE, 1999.
- INDE, *Fichero de gimnasia natural*, Barcelona, INDE, 1999.
- INDE, *Fichero de juegos de equipo*, Barcelona, INDE, 1999.
- INDE, *Fichero de juegos malabares*, Barcelona, INDE, 1999.
- INDE, *Fichero habilidades motrices básicas*, Barcelona, INDE, 1999.
- JARDY, C., *1000 ejercicios y juegos con material alternativo*, Madrid, MEC, 1992.
- LA SIERRA, G., *1013 ejercicios y juegos aplicados al balonmano*, Barcelona, Paidotribo, 1991.
- MARTÍN LORENTE, E., *1000 ejercicios gimnásticos con material fijo y móvil*, Barcelona, Paidotribo, 1998.
- MARTÍNEZ, M., *Educación del ocio y tiempo libre con actividades físicas alternativas*, Madrid, Esteban Sanz Martínez editorial, 1995.
- MATEU, M., *1000 ejercicios y juegos aplicados a las actividades corporales de expresión*, Barcelona, Paidotribo, 1991.
- MATEU, M., *1300 ejercicios y juegos aplicados a las actividades gimnásticas*, Barcelona, Paidotribo, 1999.
- MEC, *Actividad en la naturaleza*, Madrid, MEC, 1996.
- MIÑARRO LÓPEZ, P.A., *Ejercicios desaconsejados en la actividad física: detección y alternativas*, Barcelona, INDE, 2000.
- MORALES, A., ORDÓÑEZ, G., *Diccionario temático de los deportes*, Málaga, Argual, 2000.
- NEALY, W., *¡En línea! Manual para patinadores principiantes e intermedios*, Madrid, Desnivel, 1999.
- NORRIS, C.M., *La guía completa de los estiramientos*, Barcelona, Paidotribo, 2001.
- OLIVEIRA, J.B., *1169 juegos y ejercicios de atletismo*, Barcelona, Paidotribo, 1999.
- OLIVER BELTRÁN, J., *1250 juegos y ejercicios de baloncesto*, Barcelona, Paidotribo, 1994.
- ROSA, J.J., DEL RÍO, E., *Terminología de la educación física y su didáctica*, León, Universidad de León, 1999.
- RUIBAL, O., SERRANO, A., *Respira unos minutos: ejercicios sencillos de relajación*, Barcelona, INDE, 2001.
- SEBASTIANI I OBRADOR, E.M., GONZÁLEZ BARRAGÁN, C., *Cualidades físicas*, Barcelona, INDE, 2000 (Biblioteca temática del deporte).



TEKNOLOGIA

- CANEY, Steven, *El libro de los juguetes*, Barcelona, Emecé, 1972.
- CARO BAROJA, J., *Tecnología popular española*, Barcelona, Círculo de Lectores, 1988.
- FARRINGTON, B., *Ciencia griega*, Barcelona, Icaria, 1979.
- FONT, J., *Asesinato en el politécnico de Barcelona*, Barcelona, Octaedro, 1998.
- FONT, J., *La fuerza del río*, Barcelona, Octaedro, 2000.
- GARCÍA TAPIA, Nicolás, *Un inventor navarro: Jerónimo de Ayanz y Beaumont*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2001.
- GILLE, Didier, *Historia de los grandes inventos*, Zaragoza, Edelvives, 1991.
- HANS, Tahel, *Nacimiento de la Atlántida*, Barcelona, Timun Mas, 1985.
- JARDINE, J., *La física en sus aplicaciones*, Madrid, Akal, 1992.
- MACAULAY, *Nacimiento de una ciudad moderna*, Barcelona, Timun Mas, 1980.
- MILLÁN, J.A. *Base y el generador misterioso*, Madrid, Siruela, 2002.
- MUMFORD, Lewis, *Técnica y civilización*, Madrid, Alianza, 1971.
- MURANI, Bruno, *¿Cómo nacen los objetos?*, Barcelona, Gustavo Gili, 1983.
- PANATI, Charles, *Las cosas nuestras de cada día*, Barcelona, Ediciones B, 1988.
- REY, F., ORRIOLS, J., *El ascensor ocupado*, Barcelona, Octaedro, 2001.
- RUESH, *Igloos en la noche*, Barcelona, Ultramar, 1990.
- RUIZ DE ELVIRA, Malén, *Eureka*, Madrid, Temas de hoy, 1999.
- SAURY, Alain, *La vida autosuficiente*, volumen 2, Barcelona, Blume, 1994.
- SCHUMACHER, E.F., *Lo pequeño es hermoso*, Barcelona, Blume, 1978.
- SEYMOUR, J., GIRADET, H., *Proyecto para un planeta verde*, Barcelona, Blume, 1987.
- SHARPE, T., *Wilt*, Barcelona, Anagrama, 1984.
- WHITERMEAD, *Historia del dinero*, Madrid, SM, 1976.

.....

IRAKURKETA PLANAREN
OINARRIZKO ARDATZAK



Irakurketa planaren oinarrizko ardatzak

1

Haur eta nerabeen hezkuntzan betekizunen bat dugun guztiok badugu irakurtzeko ohitura sustatzeko erantzukizunen bat, baina zeregin honetan gizarte osoak badu zereginik: familia, irakasleak, liburutegi publikoa, hezkuntzako administrazioak, erakunde politikoak eta abar.

2

Hezkuntza Departamentukook irakurketa zeharkako gaitzat hartzen dugu, curriculumaren arlo guztiei eragiten baitie eta ezinbesteko tresna baita irakasgai guztiak ikasteko. Hezkuntzarako Irakurketa Planaren helburua da irakurriaren ulermena bultzatzea, ez bakarrik fikziozko literaturaren arloan, baizik eta jakintzagai guztietan.

3

Eskola, erakunde bat den aldetik, erantzulea da gazteek irakurtzea gogoko ez dutenean, irakurria ulertzen ez dutelako, eta erantzulea da, orobat, irakurtzeko gaitasunik ez dutenean, horretarako beharrezko mekanismo mentalak garatu ez dituztelako. Honenbestez, irakasleek erantzukizun konpartitua dute irakurleak prestatzerakoan, izan ere, prestakuntza horrek gaitasuna eman behar die eskola eta lan munduan arrakastaz ibiltzeko.

4

Eginkizun horretan hizkuntzaren arloak bere betekizuna badu, hala ere langintza horretan beharrezkoa da curriculumeko arlo guztietako irakasleen partaidetza eta laguntza.

5

Ikasleei arlo guztietako material dibulgatiboak irakurtzeko aukera eman behar zaie ikasgelan, irakastorduetan, banaka edo taldeka, isilpean edo ozenki.

6

Irakurriaren ulermenaren arrazoiak. Irakurri, zertarako?

- Ikasteko irakurri.
- Ahoz eta idatziz komunikatzeko irakurri
- Sentimenak sentitzeko irakurri.
- Ahalmen kritikoa izateko irakurri.

7

Irakurketa idazketarekin eta ahozko adierazpenarekin uztartu behar da, hau dela-eta elkarrekin landu beharrekoak dira.

8

Irakurzaletasuna sustatzeko jokoek gararazten dute irakurketarekiko atxikimendu afektibo eta intelektuala, baina zoritxarrez ez dituzte irakurleak sortzen. Irakurketa bultzatzeko kanpaina eraginkor batek ez du bere jarduna egun jakin batzuetan agortu behar, baizik eta ikastetxearen Plan jakin bati erantzun behar dio. Plan hau klaustroak berak sortuko du eta hezkuntzako planetan sartua egoteaz gain, irakasle guztiek batera, modu programatu eta jarraituan, indarrean jarriko dute.


9

Eskolarekin batera bada beste ardatz nagusi bat haurren eta nerabeen hezkuntza sostengatzen duena: familia. Gurasoek, irakasleen aholkuei jarraikiz, langintza horretan indarrak jarri behar lituzkete.

10

Eskola liburutegia ezinbesteko tresna da irakurketa planak arrakasta izan dezan. Baina hala izan dadin, ikastetxeko irakasleek behar bezala antolatu eta dinamizatu behar dute.

.....



sorta **Urdina**

Blitz Hezkuntza eta Kultura Departamentuan

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan**
Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa.**
ABIES 2.0 programa

sorta **Berdea**

Blitz Eskolan

1. **MARIANO CORONAS**
Eskolako liburutegia
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. **VÍCTOR MORENO**
Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak
3. **VILLAR ARELLANO YANGUAS**
Liburutegia eta ikaskuntza autonomia
Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta ballatzeko gida didaktikoa

sorta **Horia**

Blitz Irakurketarekin

1. **Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean**
Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

BLITZ
Liburutegiko saga

COLECCIÓN **BIBLIOTECAS ESCOLARES**



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

